

# OSAKIDETZAREN LANBIDE- GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

2024KO IZENA EMATEKO FASEKO OHIKO GALDERAK

Osakidetza

1.

## OSAKIDETZAREN LANBIDE-GARAPENeko OHIKO DEIALDIA (abenduarien 10ko 1723/2024 EBAZPENA)

OHIKO GALDERAK

### AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	1
1. IZENA EMATEKO ESKAERA.....	2
2. ATZERA EGITEA.....	5
3. APLIKAZIO-EREMUA.....	6
4. SARTZEKO BALDINTZAK.....	7
5. LANBIDE-GARAPENARI DAGOKIONEZ EGINDAKO ZERBITZUEN GUZTIRAKOA.....	9
6. EBALUAZIO-FAKTOREAK.....	12

# 1. IZENA EMATEKO ESKAERA

## 1. NORK ESKA DEZAKE PROZESU HONETAN PARTE HARTZEA?

Parte har dezakete Osakidetzako lanbide-talde guztietako langile **finkoek eta ez-finkoek**, baldin eta eskaerak aurkezteko epean zerbitzu aktiboan edo senideak zaintzeko, genero-indarkeriagatiko edo zerbitzu bereziengatiko eszedentzian badaude, eta, gainera, deialdiaren ebazpenaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## 2. NOLA EGIN DEZAKET ESKAERA?

Parte-hartzaile bakoitza lanbide-garapeneko aplikazio informatikora sartu ahalko da URL honen bidez: <https://lanbidegarapena.osakidetza.eus>. Lanbide-garapenari buruzko atal bat gehitu da intranetean eta Osakidetzaren webgunean. Webgunetik bertatik, erabiltzaileek bi modu izango dituzte aplikaziora sartzeko:

- **Osakidetzako profesionalak:** NANaren eta Norbideko pasahitzaren bidez (Osakidetzako sistemetara sartzeko erabiltzen diren berberak).
- **Osakidetzako profesionalak eta profesional ohiak:** IZENPEren bidez (Euskadiko identifikazio elektronikoa), BakQ, ziurtagiri digitalak edo Cl@ve erabilia.

## 3. ZEIN DA ESKAERA EGITEKO EPEA?

2025ko urtarrilaren 3tik 2025ko otsailaren 3ra.

## 4. BESTE OSASUN-ZERBITZU EDO ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHAR AL DUT?

Lanbide-garapenaren maila lortzeko behar diren zerbitzu-urteak zenbatzeko, **2024ko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuak hartzen dira kontuan**. Hona hemen bete beharreko jarraibideak:

Beste osasun-zerbitzu edo administrazio publiko batzuetan zerbitzuak eman badituzu:

- CV aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta badaude, ez duzu dokumentazio gehiagorik aurkeztu beharko.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta badaude, baina ez baduzu entregatu/aurkeztu emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo kopia konpultsatua, eskaera egiteko epearen barruan aurkeztu beharko duzu zure zerbitzu-erakundeko Langileen Sailean.
- CV aplikazio informatikoan erregistratuta ez badaude, erregistratu egin behar dituzu eta emandako zerbitzuen ziurtagiri originala edo kopia konpultsatua entregatu/aurkeztu behar duzu.

Ziurtagiri horretan data, izen-abizenak eta konpultsa egin duen arduradunaren sinadura irakurgarria agertu behar dira, zure zerbitzu-erakundeko Langileen Zerbitzuan eskabidea aurkezteko epearen barruan.

## 5. ZEIN DIRA ESLEITUTAKO MAILAREN ZENBATEKOAK ETA ORDAINSARI-ONDORIOAK?

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 10ko **1723/2024 Ebazpenaren 11. artikuluan** jasotzen dira mailaren esleipenak ordainsarian izango dituen ondorioak.

## 6. ZER EGIN DEZAKET APLIKAZIOAK ADIERAZTEN BADIT SARBIDERIK EZ DUDALA?

<https://lanbidegarapena.osakidetza.eus> estekan aplikazio informatikoan sartzeko arazoak dituzten pertsonak 945006350 – 806350 **telefono-zenbakira** deitu ahal izango dute, edo, bestela, helbide honetan dagoen **formulario** honen bidez bidali kontsulta: <https://inkestagune.osakidetza.eus/index.php/888768?lang=es>

## 7. NOIZ JASOKO DUT AITORTU Z Aidan LANBIDE-GARAPENAREN MAILAREN ZENBATEKOA ETA ZEIN DIRA EBAZPENAREN 6. ARTIKULUAN EZARRITAKO ORDAINSARI-ONDORIOAK?

Berrikusketa eta erreklamazio guztiak aztertu eta ebatzi ondoren, **maila esleitzeko behin betiko ebazpena** emango da, eta dagokion zenbatekoa nominan ordainduko da, kasu bakoitzean ezarritako ordainsari-ondorioekin.

## 8. OHIKO DEIALDI HONETAN, OSAKIDETZAK EGINGO AL DU OFIZIOZKO ESKAERARIK EZOHIKO DEIALDIAN BEZALA?

Ez, deialdi honetan **ez dago inolako pertsona-talderentzako ofiziozko eskaerarik**. Lanbidegarapeneko mailaren eskaera aurkeztea borondatezkoa da, eta pertsona bakoitzari dagokio aurreikusitako epean eta moduan ematea izena.

## 9. OHIKO DEIALDIAN FORMALIZATU DUT NIRE ESKAERA, ETA DAGOKION FROGAGIRIA DESKARGATU DUT. HORREK ESAN NAHI DU ONARTUTA NAGOELA?

Ez, prozesuan izena ematea funtsezkoa da ohiko deialdi honetan parte hartzeko, baina horrek **ez du esan nahi pertsonak onartuta daudenik**. Eskerak aurkezteko epea amaituta, Osakidetza egiaztatuko du izena eman duen pertsona bakoitza deialdiaren aplikazio-eremuan dagoela, 1723/2024 Ebazpenaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ebazpen horren 3. artikuluan **ezarritako sarbide-baldintzak betetzen dituela**. Baldintza horiek betetzen ez dituztenak deialditik kanpo geratuko dira. Baztertze hori arrazoitua izango da, eta erreklamatu eta zuzendu ahalko da 10 egun balioduneko epean, dagokion ebazpena argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

## 10. OHIKO DEIALDIAN IZENA EMAN DUT, BAINA APLIKAZIO INFORMATIKOAK EZ DIT AUKERARIK EMATEN NIRE GARAPEN-MAILA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA ERANSTEKO.

Fase honetan **ezin da inolako dokumentaziorik erantsi Lanbide-garapenaren aplikazioan**. Garapen-mailaren autoebaluazioa prozesuaren ondorengo fase batean egingo da, eta, horretarako, pertsona bakoitzak Ebaluaziorako Ekarpenen Fitxa bat aurkeztuko du. Fase hau ohiko deialdian parte hartzeko izen-ematea formalizatzeko baino ez da.

## 11. OHIKO DEIALDIAN IZENA EMAN DUT, BAINA APLIKAZIO INFORMATIKOAK EZ DIT LANBIDE-GARAPENENKO MAILARIK ESLEITU.

Fase honetan, aplikazio informatikoak **ez du lanbide-garapeneko mailarik proposatzen ezta esleitzen ere**. Lanbide-garapenaren prozesuaren ondorengo fase batean esleituko da, autoebaluazioa eta arloko, zerbitzuko edo unitateko arduradunak ebaluazioa egin ondoren. Fase hau ohiko deialdian parte hartzeko izen-ematea formalizatzeko baino ez da.

## 12. ZER DOKUMENTAZIO AURKEZTU BEHAR DUT LANBIDE-GARAPENENKO DEIALDIAN ETA NON AURKEZTU BEHAR DUT DOKUMENTAZIO HORI?

**Osakidetzatik kanpo emandako zerbitzuak eta B blokeko curriculumaren merezimenduak** (Prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkundea eta Ikerkuntza eta berrikuntza) eta C blokeko curriculumaren merezimenduak (Parte-hartzea eta Konpromisoa) egiaztatzen dituen dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, **baldin eta aldez aurretik Curriculum Vitae aplikazio informatikoan erregistratuta eta baliozkotuta ez badago**. Dokumentazio hori Curriculum Vitae aplikazio informatikoan erregistratuko du parte-hartzaile bakoitzak, eta jatorrizko dokumentazioa edo fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko du Osakidetzak baliozkotzeko unean.

## 2. ATZERA EGITEA

### 13. LANBIDE-GARAPENAREN APLIKAZIO INFORMATIKOAN SARTU NAIZ, ETA DEIALDI HONETAN IZENA EMAN DUT. HALA ERE, NIRE ESKAERAN ATZERA EGIN NAHI DUT. ZER EGIN BEHAR DUT HORRETARAKO?

Lanbide-garapeneko deialdian izena emateko eskaeran atzera egitea eskatzeko, nahikoa da "Izena ematea" fitxan dagoen "**Atzera egitea**" botoia sakatzea. Kontuan izan, atzera egitea eskatzen duzunean, Osakidetza automatikoki onartuko duela, eta zure eskaera baliogabetuta geratuko dela. Beraz, **ezingo duzu berriro eskatu izena ematea** abenduaren 10ko 1723/2024 Ebazpenak araututako deialdian.

### 3. APLIKAZIO-EREMUA

#### 14. ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOA NAIZ, ETA ESZEDENTZIAN NAGO SEKTORE PUBLIKOAN ZERBITZUAK EMATEAGATIK. DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAREN BARRUAN NAGO?

Ez. Sektore publikoan zerbitzuak emateagatik eszedentzian dauden langileak **ez daude** ohiko deialdi honen aplikazio-eremuan, 1723/2024 Ebazpenaren 2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 15. LANPOSTUA JABETZAN DUT OSAKIDETZAN, BAINA OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) BESTE OSASUN-ZERBITZU BATI ATXIKITA NAGO ALDI BATERAKO, ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ. DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAREN BARRUAN NAGO?

Bai, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batean zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako atxikita dauden profesionalak deialdiaren **aplikazio-eremuan daude**. Hala ere, gainerako profesionalek bezala, 1723/2024 Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritako sartzeko eskakizunak bete beharko dituzte; izan ere, Osakidetzan lanpostua jabetzan duten langile finkoek egiaztatu behar dute gutxienez urtebetez benetan lan egin dutela Osakidetzan deialdiko eskaera-epea hasi aurreko azken hiru urteetan.

#### 16. NIRE KASUA AURREKOAREN ANTZEKO DA, BAINA ALDERANTZIZ. LANPOSTUA JABETZAN DUT OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO (OSN) BESTE OSASUN-ZERBITZU BATEAN, BAINA OSAKIDETZARI ATXIKITA NAGO ALDI BATERAKO, ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ. DEIALDIAREN APLIKAZIO-EREMUAREN BARRUAN NAGO?

Bai, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batean lanpostua jabetzan duten eta zerbitzu-eginkizunen bidez aldi baterako Osakidetzari atxikita dauden profesionalak deialdiaren **aplikazio-eremuan daude**. Berriz ere, gainerako profesionalek bezala, 1723/2024 Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritako sartzeko eskakizunak bete beharko dituzte; izan ere, Osakidetzan lanpostua jabetzan duten langile finkoek egiaztatu behar dute gutxienez urtebetez benetan lan egin dutela Osakidetzan deialdiko eskaera-epea hasi aurreko azken hiru urteetan.

## 4. SARTZEKO BALDINTZAK

### 17. NOIZ BETE BEHAR DIRA SARTZEKO BALDINTZAK?

Batetik, **2025ko urtarrilaren 2an bete behar da Osakidetzan benetan emandako zerbitzuen eskakizuna**, egun horretan hasten baita eskaerak aurkezteko epea. Hala, Osakidetzan **lanpostua jabetzan duten langile finkoek** gutxienez urtebeteko benetako zerbitzu-aldia eduki behar dute Osakidetzan eskaera-epea hasi aurreko 3 urteetan; hau da, urtebeteko zerbitzua eman behar izan dute 2022ko urtarrilaren 3tik 2025ko urtarrilaren 2ra bitartean. Aldiz, Osakidetzan **lanpostua jabetzan ez duten langile finkoek** gutxienez 3 urteko benetako zerbitzu-aldia eduki behar dute Osakidetzan eskaera-epea hasi aurreko 3 urteetan; hau da, urtebeteko zerbitzua eman behar izan dute 2022ko urtarrilaren 3tik 2025ko urtarrilaren 2ra bitartean. Azkenik, **finkoak ez diren langileek** 3 urteko benetako zerbitzu-aldia eduki behar dute eskaera-epea hasi aurreko 5 urteetan; hau da, 3 urteko zerbitzua eman behar izan dute 2020ko urtarrilaren 2tik 2025ko urtarrilaren 2ra bitartean.

Bestetik, ohiko deialdi honetan lanbide-garapeneko mailaren bat eskatzen duten profesionalek **2023ko abenduaren 31n beteta izan behar dute eskatutako zerbitzu-aldia maila eskatzen den kategorian edo lanbide-taldean**. Osasun Sistema Nazionalan (OSN) edo Europar Batasuneko estatuetakos osasun sistema publikoetan eta beste administrazio publiko batzuetan beste lanbide-talde batzuetan emandako zerbitzuak ere zenbatuko dira, 2023ko abenduaren 31ko datara arte.

### 18. ESTATUTUPEKO LANGILE EZ-FINKOIA NAIZ. GAUR EGUN EZ DAUKAT GARAPEN-MAILARIK AITORTUTA, ETA, 2024KO ABENDUAREN 31N, GUZTIRA 5 URTE ETA ERDI NERAMATZAN OSAKIDETZAN LANEAN, 248/2007 DEKRETUAN ARAUTUTAKO ZENBAIT LANBIDE-TALDE KONTUAN HARTUTA. ZEHAZKI, 4 URTE DITUT LANBIDE-TALDE BATEAN, ETA URTE ETA ERDI BESTE LANBIDE-TALDE BATEAN. GORAGOKO TALDEAN EMAN NITUEN ZERBITZUAK LEHENIK, ETA, GAUR EGUN, BEHERAGOKO TALDE BATEAN ARI NAIZ LANEAN. ESKAKIZUNAK BETETZEN AL DITUT?

Bai, 1723/2024 Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen dituzu. Egindako zerbitzu-urteei dagokienez, deialdian parte hartu nahi duten profesionalek 5 urte gutxienez egon behar izan dira lanbide-garapenaren maila lortu nahi duten taldean. 248/2007 Dekretuak araututako taldeetako langileen kasuan (hau da, A1 eta B1 ez diren taldeetako langileen kasuan), lanbide-garapena lortu nahi den kategorian emandako 5 urteak zenbatzeko, **kontuan hartuko dira bai maila lortu nahi den kategoriako lanpostu funtzionalak bai goragoko kategorietakoak**. Gaur egun beheko taldean zaudenez, goragokoan emandako zerbitzuak kontuan har daitezke 5 urteak zenbatzeko garapen-maila eskatzen duzun lanbide-taldean.



## 19. NIRE KASUA ANTZEKOA DA. ESTATUTUPEKO LANGILE EZ-FINKOA NAIZ. GAUR EGUN EZ DAUKAT GARAPEN-MAILARIK AITORTUTA, ETA, 2024KO ABENDUAREN 31N, GUZTIRA 5 URTE ETA ERDI NERAMATZAN OSAKIDETZAN LANEAN, 248/2007 DEKRETUAN ARAUTUTAKO ZENBAIT LANBIDE-TALDE KONTUAN HARTUTA. NIK ERE 4 URTE DITUT LANBIDE-TALDE BATEAN, ETA URTE ETA ERDI BESTE LANBIDE-TALDE BATEAN, BAINA, NIRE KASUAN, LEHENIK ETA BEHIN BEHERAGOKO KATEGORIAKO LANPOSTU BAT BETE NUEN 4 URTEZ, ETA, GAUR EGUN, GORAGOKO KATEGORIAKO TALDE BATEAN NAGO. ESKAKIZUNAK BETETZEN AL DITUT?

Ez, ez dituzu betetzen 1723/2024 Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritako eskakizunak. Egindako zerbitzu-urteei dagokienez, deialdian parte hartu nahi duten profesionalek 5 urte gutxienez egon behar izan dira lanbide-garapenaren maila lortu nahi duten taldean, kontuan hartuta talde horretan edo goragokoan emandako zerbitzuak, betiere talde horiek 248/2007 Dekretuak araututakoak badira (hau da, ez A1 ez B1 lanbide-taldeak). Gaur egun goragoko taldean zaudenez, **ezin dira beheragoko lanbide-taldeetan emandako zerbitzuak aintzat hartu goragoko taldean 5 urteak zenbatzeko**; hala, urte horiek dagokion taularen arabera haztatuko dira.

## 20. LANBIDE-TALDE BATEAN LANGILE EZ-FINKO GISA IA 6 URTE EMAN ONDOREN, OSAKIDETZAN LANPOSTUA JABETZAN LORTU NUEN BESTE TALDE BATEAN, ETA, 2024KO ABENDUAREN 31N, TALDE HORRETAN 2 URTE BAKARRIK NERAMATZAN LANEAN. BETETZEN AL DITUT DEIALDIAN EZARRITAKO ESKAKIZUNAK?

Jabetzan duzun eta gaur egun betetzen duzun lanpostua **248/2007 Dekretuak arautzen** badu eta aurreko urteetan ez-finko gisa egon zinen lanbide-taldea baino **beheragoko lanbide-talde batekoa** bada, **betetzen dituzu** deialdiko eskakizunak, lanpostuan emandako zerbitzu-urteei goragoko lanbide-taldean emandako zerbitzu-urteak gehitzen baitzaizkie.

Aitzitik, jabetzan duzun eta gaur egun betetzen duzun lanpostua **ez badu 248/2007 Dekretuak arautzen** edo aurreko urteetan ez-finko gisa egon zinen lanbide-taldea baino **goragoko talde batekoa** bada, **ez dituzu betetzen** deialdiako eskakizunak, lanpostuan emandako zerbitzu-urteei ez baitzaizkie gehitzen beheragoko lanbide-taldeetan emandako zerbitzu-urteak, baldin eta aurretik ez baduzu gutxienez 5 urtez zerbitzua eman talde horretan.

# 5. LANBIDE-GARAPENARI DAGOKIONEZ EGINDAKO ZERBITZUEN GUZTIRAKOA

## 21. OSAKIDETZAN EMANDAKO ZERBITZUAK ZENBATZEAN, NOLA EGITEN DA URTEEN KALKULUA? EGUNAK ZATI 365 EGITEN DA, ALA ZATI 360?

Lanbide-garapenaren ondorioetarako, Osakidetzan emandako zerbitzuen zenbaketa honela lortzen da: **zerbitzu aktiboan emandako egunak zati 365** (366 bisurteetan); izan ere, Osakidetzaren Lanbide-garapenaren arloko araudi osoak **urtea** ezartzen du emandako zerbitzuak **neurtzeko unitate gisa**, eta ez da inola ere aipatzen zenbaketa hori 365 eguneko urte naturalaren kalkuluz bestelakoa izan behar denik. 360 egunen aipamena, ordea, Enplegu Publikoaren Eskaintzetatik (EPE) dator; izan ere, EPE-en oinarrietan adierazten da hilabetea dela neurtzeko unitatea, 30 egun naturaleko hilabete gisa ulertuta, eta hamartarrak mespretxatuta. **Emandako zerbitzuei buruzko EPEko oinarrien araudia ezin da hemen aplikatu.**

## 22. BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EGINDAKO ZERBITZUAK ZENBATZEKO, ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA?

Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak **honako baldintza hauek betetzen direnean bakarrik zenbatzen dira**: (1) pertsonak, aldez aurretik, gutxienez 5 urtez zerbitzuak eman ditu Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan, garapen-maila lortzeko lehiatzen den lanbide-taldean (ikus 23. galdera), (2) emandako zerbitzuak administrazio publikoetan lortu dira, eta ez soilik sektore publikoko erakundeetan (ikus 24. galdera), eta (3) beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak Osakidetzan garapen-maila lortzeko aurkezten den lanbide-talde berean izan behar dira.

## 23. BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUETAN EMANDAKO ZERBITZUAK ZENBATUKO DIRA, OSAKIDETZAN 5 ZERBITZU-URTE BETE EZ ARREN?

Ez. Beste administrazio publiko batzuetan emandako zerbitzuak % 50ean zenbatzeko, Osakidetzan, Osasun Sistema Nazionaleko (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetan edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien osasun-sistema publikoetan eskatutako maila lortzeko **behar diren zerbitzu-urteak bildu behar dira** aldez aurretik, 1723/2024 Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

## 24. OSAKIDETZATIK KANPO SEKTORE PUBLIKOKO HAINBAT ERAKUNDETAN EMAN DITUT ZERBITZUAK. NOLA ZENBATUKO DIRA LANBIDE-GARAPENAREN ONDORIOETARAKO?

Osakidetzan (1), Osasun Sistema Nazionalako (OSN) beste Osasun Zerbitzu batzuetan (2) edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien Osasun Sistema Publikoetan (3) eman ez diren zerbitzuak soilik zenbatuko dira % 50ean, Osakidetzan maila aitortzeko eskatzen den lanbide-talde berari dagozkioenean, baldin eta **beste Administrazio Publiko batzuetan eta ez Sektore Publikoko beste erakunde batzuetan soilik eman badira.**

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean ezarritakoaren arabera, sektore publikoko erakunde guztiak ez dira administrazio publikoak. Lanbide-garapenaren ondorioetarako, Osakidetzatik kanpo, Osasun Sistema Nazionalako (OSN) beste osasun-zerbitzu batzuetatik kanpo edo Europar Batasuneko estatu kideei dagozkien osasun-sistema publikoetatik kanpo emandako zerbitzuak administrazio publikoei dagozkie, eta ez sektore publikoari.

## 25. ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOA NAIZ ETA ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENEAN NAGO (ABBS). NOLA ZENBATZEN DIRA EGOERA HORRETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?

Lanpostuaz bestelako lanbide-talde batean emandako zerbitzuak, aldi baterako barne-sustapenaren bidez lortu direnak, **lanpostuaren titulartasuna duen taldean** zenbatuko dira lanbide-garapenaren ondorioetarako.

## 26. ESTATUTUPEKO LANGILE FINKOA NAIZ, ETA GORAGOKO KATEGORIAKO EGINKIZUNAK BETETZEN ARI NAIZ. NOLA ZENBATZEN DIRA EGOERA HORRETAN EMANDAKO ZERBITZUAK?

Goragoko kategoriako eginkizunetan emandako zerbitzuak, lanbide-garapenaren ondorioetarako, **plazaren titulartasuna duen taldean** zenbatuko dira.

## 27. A1 EDO B1 LANBIDE-TALDEETAKO PERTSONAL SANITARIOA NAIZ. NOLA ZENBATZEN DIRA IKERTZAILE GISA EMANDAKO ZERBITZUAK?

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretuak eta otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak araututako unibertsitateko osasun-langileei dagozkien lanbide-taldeetan, % 100ean zenbatzen dira ikertzaile gisa emandako zerbitzuak, baldin eta **honako baldintza hauek guztiak** betetzen badituzte: (1) Ikerketako Zentro Ofizialetan edo Osasun Sistema Nazionalari (OSN) atxikitako erakundeetan eman badira; (2) lan-

kontratuaren bidez araututa badaude; (3) lizentziadun, diplomadun edo unibertsitate-graduako osasuntitulazioa nahiz osasun-zientzietako espezialistaren titulazioa eskatu bada.

## 28. A2 EDO B2 LANBIDE-TALDEETAKO ESTATUTUPEKO LANGILEA NAIZ, ETA IKERKETA-ZENTRO OFIZIALETAN LANGILE IKERTZAILE GISA EMANDAKO ZERBITZUAK DITUT, KONTRATU ETA GUZTI. NOLA ZENBATZEN DIRA ZERBITZU HORIEK?

A1 eta B1 ez diren lanbide-taldetik Osakidetzan lanbide-garapenaren maila lortu nahi duten profesionalek Ikerketa Zentro Ofizialetan langile ikertzaile gisa emandako zerbitzuak **beste administrazio publiko batzuetan eman direnean bakarrik** zenbatzen dira. Langile ikertzaile gisa emandako zerbitzu horiek sektore publikokoak edo erakunde pribatuetoakoak diren ikerketa-zentro ofizialetan eman badira, ezin izango dira kontuan hartu lanbide-garapenean emandako zerbitzuak zenbatzeko.

## 29. BI LANPOSTU DITUT JABETZAN. HORIETAKO LEHENENGOAN, LANBIDE-GARAPENEN II. MAILA AITORTU DIDATE, BAINA DUELA URTE BATZUETATIK BIGARREN LANPOSTUAN NAGO LANEAN, ETA HORI GORAGOKO LANBIDE-TALDE BATI DAGOKIO. NOLA ZENBATZEN DIRA ZERBITZU HORIEK?

Langile finkoa denez, lanbide-garapeneko mailaren eskaera **plazaren titularra izanik eskaera egiteko epean zerbitzu aktiboan dagoen** lanbide-taldetik egin beharko du, eta lanbide-talde horretan gutxienez 5 zerbitzu-urte izan behar ditu garapen-maila lortu ahal izateko. Kasu horretan, behe-mailako lanbide-taldean emandako zerbitzuak, lehendik aitortuta zituenak, 1723/2024 Ebazpenaren 3. artikuluan jasotako taularen arabera dagokion haztapenaren arabera zenbatuko dira.

## 30. KATALUNIAKO ERABILERA PUBLIKOKO OSASUN SISTEMA INTEGRALEKO (SISCAT) ESTABLEZIMENDU SANITARIOETAN EMANDAKO ZERBITZUAK DITUT. NOLA ZENBATZEN DIRA ZERBITZU HORIEK?

Kataluniako Erabilera Publikoko Osasun Sistema Integralean (SISCAT) emandako zerbitzuak **ez dira nahastu behar Kataluniako Osasun Zerbitzuan (CatSalut)** emandako zerbitzuekin. SISCAT zentro eta establezimendu sanitarioen sare bat da, eta hainbat erakundek osatzen dute, horietako asko Sektore Publikoko enpresa pribatuak, fundazioak edo erakundeak, eta, beraz, ez daude Osasun Sistema Nazionalean (OSN) integratuta antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez; aitzitik, Kataluniako Osasun Zerbitzuarekin (CatSalut) itunduta ematen dizkiete osasun-zerbitzuak herritarrei. Horregatik, Kataluniako Osasun Zerbitzuan (CatSalut) emandako zerbitzuak bakarrik hartzen dira kontuan, eta ez Kataluniako Erabilera Publikoko Sistema Sanitario Integraleko (SISCAT) erakundeetan emandakoak.

## 6. EBALUAZIO-FAKTOREAK

### 31. ZEIN MAILATAKO LANBIDE-GARAPENA ESKATU AHAL DUZU OHIKO DEIALDI HONETAN?

Profesional bakoitzak **lehendik aitortua duen garapen-maila baino goragoko hurrengo maila** baino ezin du eskatu. Osakidetzan edo Osasun Sistema Nazionalan (OSN) aitortutako mailarik ez duten pertsonen kasuan, I. maila baino ezin dute lortu.

### 32. SARTZEKO BALDINTZAK BETETZEN BADITUT ETA MAILA LORTZEKO ESKATZEN DIREN EMANDAKO ZERBITZU-URTEAK BADITUT, ZIUR LANBIDE-GARAPENEN MAILA HORI AITORTUKO DIDATELA?

Ez. Sartzeko baldintzak betetzea, maila lortzeko eskatzen diren emandako zerbitzu-urteak barne, ezinbesteko baldintzak dira ebaluazioko ohiko deialdian parte hartzeko, baina **ez dira baldintza nahikoak** lanbide-garapenaren maila aitortzeko. Sartzeko baldintza horiek betetzeaz gain, profesionalek honako hauetan ezarritako gutxieneko puntuazioak lortu beharko dituzte.

### 33. OHIKO DEIALDI HONETAN, ZER FAKTORE EBALUATZEN DIRA LANBIDE-GARAPENAREN MAILA AITORTZEKO?

Azaroaren 22ko 395/2005, otsailaren 27ko 35/2007 eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuen arabera, **ebaluazio-faktoreak hiru bloketan** egituratzen dira: **A blokea**, Jarduera, Konpetentzia eta Jardun profesionalari buruzkoa; **B blokea**, Prestakuntza, Irakaskuntza/Ezagutzaren Hedapena eta Ikerketa/Berrikuntzari buruzkoa; eta **C blokea**, Implikazioa eta Konpromisoari buruzkoa. Garapen-maila jakin bat aitortzeko, beharrezkoa da ebaluazioa gainditzea eta bloke bakoitzean gutxieneko puntuazio bat lortzea. Puntuazio hori aldatu egiten da lortu nahi den mailaren eta eskatzen den lanbide-taldearen arabera.